



~~~~~  
*Muskizko  
hamar biztanle  
lan-merkatuan  
hasiko dira*

*/3. orria*

~~~~~  
*GHAT eta  
garraio  
egokitua,  
luzatuta*

*/2. orria*

~~~~~  
*Hobetze-lanak  
hainbat bide  
eta auzotan*

*/4. orria*

~~~~~  
*Muskiz,  
bikaintasun  
energetikoaren  
bila*

*/5. orria*

~~~~~  
*10 urte igarota,  
Amaika Futbol  
Klub Taldea  
desagertu egin da*

*/6. orria*

## Editoriala

### Berritutako ilusioz beterik

Egun bereziak dira hauek, urte zaharra amaitu eta urte berriari ongi etorria egiteko unean baikaude. Garai honetan, proiektuak berrikusi ohi dira, amaitzen direnak, aurrera egiten dutenak eta etortzeko daudenak.

2015. urtean, ilusioz beteriko proiektua sendotu da, Muskizko bizilagunen bizitza-kalitatea hobetzeko. Irisgarritasuna, enplegua, prestakuntza, kirola, haurrentzako parkeak, kultura, natura-ibilbideak, oinezkoak gehiago kontuan hartzen duen eta hiri-kutsu handiagoa duen herria...

Horra hor bete ditugun ideietako batzuk, herritarren gozagarri. Zalantzarik gabe, poz handia ematen du zure harri-koskorra ekarri ahal izateak zure herriaren, Muskizen hazkunderari laguntza emateko.

“*Lanean aritzea,  
Muskizen bizitza-  
kalitatea hobetzeko*”

Ildo horrextan hasiko dugu 2016. urtea, berritutako ilusioz beterik, Muskiz areago handitzeko asmoz. Hainbat helburu ditugu zorroan, besteak beste, natura-ibilbidea Pobalerraino eramatea, lurak BHI berrirako jartzea, Kobaron herriguneko lanak amaitzea, izapideak hastea Itsaslur parkerako sarbideak konpontzeko...

Muskiz ez du atsedenik hartzen. Aukerak erabiltzen jarraituko dugu, geure herria eta bizilagunak eskualdeko erreferentzia izan daitezen lortzeko. Poz izugarria da gure ingurunekeko bizitza-baldintzak hobetzeko aukera izatea. Herriatik lan egitea, zuzenean engaiatuz, herrikideen bizitza-kalitatea hobetzeko.

Lantalde osoaren izenean, urte berri on!

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



### *GHET, aurten ere baztertutakoei laguntza ematen*

Udalak kontratua luzatu dio Gizartean eta Hezkuntzan Esku hartzeko Taldeari (GHET) datorren urterako, oso harrera ona izan duelako. Zerbitzuak gizartean baztertuta dauden edo baztertuta gertatzeko arriskuan dauden 31 familiari eta 178 helduri eman die laguntza. Bizikidetz-unitate horietako gehienek profila honelakoa da: diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) eta/edo gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) hartzaileak, luzaroko langabeekin eta, are gehiago, osasun mentaleko espedienteekin. Gizarte Ekintza Sailaren mendeko GHETek bultzatu duen jarduera-programak harrera bikaina izan du, eta areago sendotu da; hortaz, oraingo udalbatzak zerbitzu horren kontratua luzatu du, 215.000 euro inguruko zenbatekoaren truke.



### *Garraio egokitua, luzatuta*

Udalbatzak erabaki du mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko zerbitzuari kontratua luzatzea, batez beste urteko 12.000 asistentzia eman baititu. Esleipena urtebeterako da, eta 90.000 eurokoa da.

Zerbitzu horretako langileek 1.000 asistentzia ematen dituzte hilean batez beste, irteera erregularrak, maiztasunez egindakoak eta noizbehinkakoak aintzat hartuta. Nabarmenenak aipatzeagatik, 7 lagun eraman dituzte ia egunero Gallarrretako tailerreko lanerako ikastegira, eta asteburuetan laguntza eman diete Adizmi erakundeak antolatutako jardueretan parte hartu dutenei. Hilean egiten diren 657 zerbitzu erregularrak maiztasunez egiten diren zerbitzuen bi halako dira ia.

### *Pobeñako aterpetxeak dohaintza eman dio Bizkaiko Elikagaien Bankuari*

Udalak eta Bizkaiko Santiagoko Bideko Ostatu-emaile Boluntarioen elkar-teak 6.000 euro eman dizkiote Muskizko Elikagaien Bankuari. 2015eko uda-garaietan Pobeñako aterpetxean jasotako dohaintzen emaitza da zenbateko hori, guztira 5.700 errromesen bisita izan baita. Ekintza altruista honen bidez, laguntza eman nahi diete herri meatzari honetan dauden behartsuenei.



## Muskizko hamar biztanle lanean arituko dira 6 hilabetez

**H**amar muskiztar lanean hasiko dira, Udalak, Forlanek eta Lanbidek enplegua sustatzeko bultzatu duten azken ekimenaren bidez. Oraingoan, 118.000 euroko inbertsioa egin da, eta Lanbidek aurrekontuaren %73 jarri du.

Administrazioko langileak, ofizialak, peoiak eta teknikariak 6 hilabetez arituko dira lanean –kasu gehienetan– lanaldiaren %75ean jardunda. Kontratatutako muskiztarren %30 diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen ari ziren, %20 55 urtetik gorako langabeak ziren eta %40 emakumeak. Pertsona horiek aurreko lan-deialdian –2015eko apiril/maiatzean– hautatutako herriko 14 langabeen tokian arituko dira.



## 2015eko bonodenda, kanpaina arrakastatsua

Udalbatzaren eta Forlanen ustez, “Sin ir más lejos” kanpaina oso arrakastatsua izan da. Kanpainaren bidez, mila bonodenda jaulki dira, Muskizko dendetan erosketak sustatzeko. Bigarren edizio honetako aurrekontua 10.000 eurokoa izan da. Bonuak berriro agortu dira, eta muskiztarrek %25eko deskontua izan dute, azaroan kanpainari atxikitako udalerriko 29 dendetan erosketak egitean.



## Informazio gardena

**M**uskiz lanean ari da Gardentasun Ataria prestatzeko. Hain zuzen ere, horren bidez kudeatuko da udal-jarduerei eta, batez ere, diru publikoaren erabilerrari buruzko informazioa. Ataria prestatzeko, tresna informatikoak lantzen eta giza taldeak prestatzen

espezializatuta dagoen aholkularitza-enpresa bat kontratatu da. Talde hori arduratuko da Gardentasun Legeak araututako udalbatzaren edukiak prestatzeaz. Udalak beste urrats bat egin nahi du aurrera, herritarrek atariko edukiak ulertu ahal izan ditzaten.



## Gabonetako LED argiak

Muskizek 40.000 euro bideratu ditu Gabonetako argi bereziak jartzeko. Udalerrriaren jabetzako argiak erabili dira, eta, gainera, argi-linea berriak alokatu dira, auzo guztietako kaleetan apaingarriren bat jarri ahal izateko. Erabilitako argi guztiak LED motakoak dira, eta horrek aurrezki energetikoa ekarriko dio Udalari.

## ***Kobarongo herrigunea berritzea***

### ***Udalak zenbait auzotako bideetan ere egingo ditu lanak***

Muskizko Udalak urte hasieran amaituko ditu Kobarongo herrigunea berritzeko lanak. Proiektu honen bitartez, lora-tegiaren eta elizaren inguruak integratu dira, eta sortu den espazioak ez du galdu bere izaera naturala, ez eta espazio publiko legez duen izaera ere. 650.000 euroko aurrekontuarekin, sarbideak, argiak, berdeguneak, euri-uren bilketa eta lehendik zeuden oinezkoentzako bideak ere hobetu dira.

Era berean, Muskizko Udalak udalerriko zenbait auzoetan ere egingo ditu lanak. Zehazki, La Cabañako ibilgua kanalizatuko

da, eta Haya BI-3795 eta Haya N-634 errepideak berrituko dira.

49.600 euroko aurrekontuarekin, La Cabañako lanak honakoak izango dira: ezponda aldatuko da, harri-lubetak betearaziko dira, eta isurketak kanalizatuko dira, hormigoizko kutxen bitartez.

El Haya auzoko errepideetan egingo diren lanak honakoak dira: zoruaren gainazala berrituko da, euri-urak kanalizatuko dira, etxebizitzaren saneamendua egingo da, eta argi-linea bat jarriko da. Bietarako aurrekontua, guztira, 57.000 eurokoa da.



## ***Gazteguneren X. urteurrena: musika eta dantza kalean***

“Oilar-gudak” eta Street Dance Txapelketa izan dira Muskizko Gaztegunek X. urteurrena ospatzeko egin duen jaiaren programazioko ardatza. Ekitaldiak Bilbon egiten den “Break On Stage” edo Leioako “Leioa Urban Eguna” emulatu nahi izan du, eskala txikian. Shintomak aurkeztu du hiri-kulturako topaketa, eta ekitaldi nagusia DJ Rasy Simonerekin egin den Street Dance Txapelketa izan da, break, hip hop, poppin eta house estiloetan.



## ***Mendi publikoen kontzesioen inbentarioa eguneratzea***

Onura publikoko mendien kontzesioen inbentarioa eguneratzeko lehen lana erregistroak eguneratzea izango da. Horretan espezializatuta dagoen enpresa bati aginduko zaio lana, eta 17.500 euro bideratuko dira horretarako. Erregistroa informatizatzeke lana Bizkaiko Foru Aldundiaren Hobekuntzen Funttsaren kargura egingo da. Diru-soberakin hori titulartasun pu-

blikoko lursailen aprobetxamenduen bidez lortzen da.

Udalak lan horri ekitea erabaki du, Foru Aldundiak horrela aholkatuta. Egungo fitxategia zaharkituta dago, oharrak oraindik paperean egiten direlako, eta paperak hain dira zaharrak, non, batzuetan, lursail bakoitzaren mugak ere ezin baitira behar bezala zehaztu.



## ***Muskiz, bikaintasun energetikoaren bila, ISO 50001arekin***

Udalak, ingurumenarekin eta garapen iraunkorrarekin duen konpromisoa aintzat hartuta, ISO 50001 araua era integralean ezartzea erabaki du, udaleko instalazio guztietan. Ziurtagiria lortuz gero, Udala Estatuko lehena izango litzateke garrantzi globaleko agiri hau izaten.

ISO 50001 lortuko balu, Muskiz aitzindaria izango litzateke berriz ere, 2013ko

abenduan ingurumen-kudeaketarako ISO 14.001 ziurtagiria eta Udaleko sail guztietarako Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko OSHAS 18.001 ziurtagiria lortu ondoren.

Finkatutako lan-planaren arabera, ziurtagiria 2016ko lehenengo sei hilekoan lortzea espero du Udalak, beharrezkoak diren kontu-ikuskatzeak, barneko zein kanpokoak, gainditu eta gero.



## ***La Sequillarako bidea birgaitzea***

31.546 euroko aurrekontuarekin, egungo udalbatzak lanak egiteari ekingo dio La Sequillarako bideko 195 metro linealetan, lur-zoruaren gainazala berritu, malda leundu, eta euri-urak bideratzeko. Lanak zenbait fasetan egingo dira, herritarrentzat izan litezkeen eragozpenak saihestu ahal izateko –gauzatzeko epea bi hilabetekoa da–.



## ***Aisialdiko zazpi baratzeren zozketa, 2016aren hasieran***

Udalak eta Petronorrek hitzarmena sinatu dute, 1.300 m<sup>2</sup> inguruko lur-azalera uzteko; azalera hori herritarren artean zozkatuko diren 7 lursailetan zatituko da. Saila egokitzeko, lur-zatiak mugatzeko eta nekazaritza-lanabesak gordetzeko etxolak instalatzeko lanak hasi dira dagoeneko. Horiek horrela, baratzeak arautzeko ordenantza onesteko izapideak bukatutakoan, esleitze-zozketa egingo da. Udalak aurreikusitakoaren arabera, 2016. urtearen hasieran izango da zozketa.



## ***Denboraldiko zerbitzuak Arena hondartzan***

Bigarren urtez jarraian, Udalak Kostaldeak Mugatzeko erakundeari eskatu dio 2016. urtean esplotazio-epea zabaltzeko, Arena hondartzako denboraldiko zerbitzu-eskaintza osatzen duten establezimenduei; besteak beste, izozki-salmentako 4 postuak, salmenta ibiltariko 24 postu eta terrazadun taberna. Eskaera martxoaren 14tik urriaren 16ra bitarteko epealdirako da. Turismo-informazioko modulua, sorosle-postua eta hondartza-volleyko eremuaren kokapena bainuko denboraldiaren arabera egokituko da.



## Elkarrizketa

### **Amaika Futbol Klub Taldea, harrobirik ez izateagatik galdutako filosofia**



**“Klubaren ondasun urriak helburu sozial nabarmeneko elkarteei eman dizkiete**

Amaika Kirol Kluba Muskizko neska-mutikoek edo udalerrri honetan futbol-preskakuntza egindako guztiek futboleko entrenatzen eta jokatzeko jarraitzeko modua izateko filosofiarekin sortu zen. Egiari zor, klubaren jaiotza etsialdi bati lotuta dago: Somorrostro taldeak uko egiten zion bigarren taldea sortzeari. Eta, 10 urteko historiaren ondoren, desagertu egin da, harrobirik ez duelako.

**G/ Azkenean, zergatik desagertu da taldea?**

*E/ Hamar urteko bizitzaren ondoren, urtez urte gero eta zailagoa zen gure taldeak Muskizko herritarrekin bakarrik mantentzeko filosofiari eustea. Jokalariak herritik kanpoko beste klub batzuetan sartzea aukeratzen zuten. Horrenbestez, lehiaketa utzi beharra izan dugu ezinbestean –Bizkaiko*

*erregionaleko 1. mailan parte hartzen genuen–, lehenengo, eta desagertu egin gara, ondoren.*

**G/ Eskuzabaltasunez, Amaika Futbol Klub Taldearen azken ondasunak Muskizko erakundeei ematea erabaki duzue.**

*E/ Bai, hala da. Joan den abenduaren 2an, Kultur Etxean izan zen ekitaldian, klubaren kutxan oraindik gelditzen zitzaigun dirua udalerrian helburu sozialekin lotuta dauden zenbait erakunderi eman genien. Besteak beste, Muskizko Elikagai Bankua eta Ikaileen Gurasoen Elkarteak izan ziren horietako batzuk.*

**G/ Zenbat lagun izan dituzue zuekin, bazkideak eta jokalariak zenbatuta?**

*E/ Bazkideetako 200 lagun izatera iritsi*

*izan gara, eta 25 jokalarik entrenatu izan ditugu, Juventud Deportiva Somorrostrorekin lankidetzan, Malecon Berria zelaian. Eta probintzia mailan, Bizkaiko Futbol Federazioarekin hainbat jardueratan lankidetzan aritu izan gara.*

**G/ Aipamen berezirik egin nahi al duzue edo lagun bati bereziki eskertu nahi al diozue izandako ardura?**

*E/ Esker ona zor diegu bereziki gure 10 urteko historian klubarekin era aktiboan lanean aritu diren dendei eta enpresei. Udala bezalako erakundeei, eta, batik bat, Amaika Futbol Klub Taldeak eta muskiztarrekin bakarrik osatzeko bere filosofiak hamarkada batean irauteko aukera eman duten zuzendaritzako kide, jokalarik, entrenatzaile eta zale guztiei, hamarkada zoragarria izan da-eta.*



### **Muskiz Gazte Project**

Gazte-bitartekaritzako zerbitzua jarri du abian Udalak, lokaletan edota lonjetan elkartzen diren gazteak, jabeakideen komunitateak eta administrazioa elkarrengana biltzeko gune bezala. Espezializatutako bi profesionalek bisitatuko dituzte lonjak, aipatutako gizarte-eragileen artean sor

daitezkeen gatazkak gutxitu ahal izateko. Muskiz Gazte Project programak malgutasuna izango du, langileek ahalmena izan dezaten hainbat eratako nerabeen taldeetara sartzeko, dinamika iraunkorrek antolatzeko edota Udala bezalako erakundeekin elkarlanean aritzeko.

### **Muskiztar bat, IV. Mello Sariko zazpigarren postuan**

Jorge Berezo Díez izan zen IV. Mello Sarian helmuga zeharkatu zuen lehenengo muskiztarra, urriaren 25ean, igandean. Zazpigarren sailkatu zen. Ismail Barza izan zen irabazle nagusia, eta ibilbideko 23,6 kilometroak ordu bete eta 45 minutuan osatu zituen. San Juanera iritsi zen lehenengo emakumea Zuriñe Frutos izan zen, Mello Sariko sailkapen orokorrean hogeigarren sailkatuta. Mello Sariaren ardatza Muskizko Elikagai Bankuarekiko eta CIDENen Himalayan Komang Hostel Kathmandu proiektuarekiko elkartzasuna izan da.

